

**1.988**

# LEITZA

# '88

## PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

11 Zenbakia



*Leireto Zenearen Festak abuztuak 10-15*

# 1.988 PESTETAKO EGITARAUUA



Leitzako Udalak Aurrera Kirol Elkartearen laguntzaz 1988ko Abuztuak 10, 11, 12, 13, 14 eta 15ean Tiburtzio Donearen ohoretan ospatutako pesten egitaraua.

Programa de festejos organizados por el Ayuntamiento de Leitza, en colaboración con el C.D. AURRERA, en honor de su patrono San Tiburcio y que tendrán lugar los días 10, 11, 12, 13, 14 y 15 del mes de agosto de 1988.

IGANDEA

DOMINGO

UZTAILA 31  
JULIO 31



Pestetako egitarauen banaketa egingen da. Leitzako gazteak eskean ibiliko dira etxez-etxe soinua joaz. (Gogoan izan dirua kaxa giltzatua dutenei bakarrik eman daitekela).

**Arratsaldeko 5etan:** Artzai zakurren Leihaketa.

**Arratsaldeko 7etan:** NAYGI taldearekin dantzaldia plazan.

**Arratsaldeko 7etan:** ARTADI txarangarekin kalejirak 9ak arte.

**Gaueko 11etan:** Berriz, NAYGI taldearekin dantzaldia plazan.

**Gaueko 12tan:** Gaiteroak ibiliko dira herrian barrena kalejiran.

Se efectuará el reparto de programas a cargo de los jóvenes del pueblo acompañados de música. (Solamente se debe entregar el dinero a aquéllos que vayan provistos de caja precintada).

**5 de la tarde:** Campeonato Comarcal de perros de pastor.

**7 de la tarde:** Actuación del grupo Naygi.

**7 de la tarde:** Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI, hasta las 9.

**11 de la noche:** Nueva actuación del grupo NAYGI.

**12 de la noche:** Kalejiras a cargo de

**7** ABUZZTUA  
AGOSTO

IGANDEA

DOMINGO



### «DIA DEL NIÑO»

**8 de la mañana:** Diana.

**9 de la mañana:** Embolados para los niños.

**10,30 de la mañana:** La Corporación, acompañada por los dantzaris ttikis del AURRERA, acudirá a la Misa mayor.

**11,30 de la mañana:** Juegos infantiles.

**5,30 de la tarde:** Embolados para los niños:

**6,30 de la tarde:** Actuación de los dantzaris ttikis y a continuación bombas japonesas.

**8 de la tarde:** Kalejiras a cargo de la txaranga ARTADI.

**8,30 de la tarde:** Bailables amenizados por la orquesta NAYGI.

**12 de la noche:** Nueva actuación del grupo NAYGI.

### «UMEEN EGUNA»

**Goizeko 8tan:** Diana txistulariekin.

**Goizeko 9tan:** Zezenak plazan.

**Goizeko 10,30tan:** Meza Nagusia, Korporazioa dantzari ttikiekin batera joanen delarik.

**Goizeko 11,30tan:** Umeentzat jokoak.

**Arratsaldeko 5,30tan:** Umeen zezen pesta.

**Arratsaldeko 6,30tan:** Dantzari ttikien saioa eta ondoren bonba japoniarrak.

**Arratsaldeko 8tan:** Kalejirak ARTADI txarangarekin.

**Arratsaldeko 8,30tan:** NAYGI taldearekin dantzaldia.

**Gaueko 12etan:** Dantzaldia NAYGI taldearekin.



ASTEAZKENA

MIERCOLES

ABUZZTUA  
AGOSTO 10



### «PESTA BEZPERA»

**Arratsaldeko 6etan:** Ezkila jotzea eta etxafuegoak botatzea pestei hasera emanaz. Ondoren kalejirak eta buru haundiak, txistulariak eta ARTADI txarangarekin.

**Arratsaldeko 7tan eta gaueko**

**12etan:** Dantzaldia JOSELU ANAIK taldearekin.

### «VISPERA DE FIESTAS»

**6 de la tarde:** Inicio oficial de las fiestas con repique de campanas y disparo del cohete. A continuación kalejiras y cabezudos a cargo de la txaranga ARTADI y los txistularis.



**7 de la tarde y 12 de la noche:**

Bailables amenizados por el grupo JOSELU ANAIK.

# 11

# ABUZZTUA AGOSTO OSTEGUNA

# JUEVES



## «TIBURTZIO DONEAREN EGUNA»

**Goizeko 7,30tan:** Dianak, txistulariek eta ARTADI txarangak joak.

**Goizeko 9tan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 10,30tan:** Meza Nagusia, Korporazioa Aurrerako dantzariekin joanen delarik.

**Eguerdiko 12etan:** AURRERAKO ezpatadantzariak plazan. Ondoren pilota partidua plazan:

AIZAGIRRE-MARIEZKURRENA  
IPARRAGIRRE-URKIOLA

**Arratsaldeko 5,30tan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30tan:** Ondoren Anjel Alduntzin eta Luis Erbitiri omenaldia. Txistularien saio bikaina.

**Arratsaldeko 7,30tan:** Pilota partidu profesionalak frontoian.

**Arratsaldeko 8tan:** Dantzaldia MINXORIAK taldearekin.

**Gaueko 12etan:** Dantzaldia MINXORIAK taldearekin.

## «FESTIVIDAD DE SAN TIBURCIO»

**7,30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9 de la mañana:** Encierro y embolados en la plaza.

**10,30 de la mañana:** La Corporación, acompañada por los Dantzaris del AURRERA, acudirá a la Misa mayor.

**12 del mediodía:** Actuación de los ezpatadantzaris del AURRERA. A

continuación partidos de pelota: AIZAGIRRE-MARIEZKURRENA

IPARRAGIRRE-URKIOLA

**5,30 de la tarde:** Vaquillas.

**6,30 de la tarde:** Alarde de txistularis, en homenaje a Angel

Alduncin y Luis Erviti.


**7,30 de la tarde:** Partidos de pelota profesionales en el frontón.

**A las 8 de la tarde y 12:** Bailables amenizados por el grupo MINXORIAK.

OSTIRALA

VIERNES

ABUZZTUA  
AGOSTO 12



**Goizeko 7,30 etan:** Dianak, txistulariek eta ARTADI txarangak joak.

**9,30tan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 11,30tan:** Herri Kirolak: I. Perurena eta M. Saralegi harrijasotzen.

**HERRIKO (26 urte arteko) AIZKOLARIEN TXAPELKETA.**

**Arratsaldeko 5,30tan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30tan:** Dantzarien saioa plazan. Ondoren bonba japoniarrak.

**Arratsaldeko 8etan:** GAU BELA taldearekin dantzaldia.

**Gaueko 12tan:** GAU BELA taldearekin dantzaldia.

**7,30 de la mañana:** Diana.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**11,30 de la mañana:** Deporte Rural: Actuación de los harrijasotzaites I. Perurena y M. Saralegi. Campeonato de Aizkolaris del pueblo (menores de 26 años).

**5,30 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Actuación de los Dantzaris y bombas japonesas.


**8 de la tarde:** Bailables a cargo de GAU BELA.

**12 de la noche:** Bailables a cargo de GAU BELA.



**13** ABUZZTUA  
AGOSTO LARUNBATA

**SABADO**



**Goizeko 7,30etan:** Diana.

**Goizeko 9,30etan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Eguerdiko 12tan:** Bertsolarien saioa zinean. LAZKAO TXIKI, AROZENA, PEÑAGARIKANO, LOPATEGI.

**Arratsaldeko 5,30tan:** Zezenak plazan.

**Arratsaldeko 6,30etan:** Leitzeko ingurutxoak plazan. Ondoren bonba japoniarrak.

**Arratsaldeko 8tan:** GAU BELA taldearekin dantzaldia.

**Gaueko 12tan:** GAU BELA taldearekin dantzaldia.

**7,30 de la mañana:** Diana.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**12 del mediodía:** Actuación de bertsolaris en el cine: LAZKAO TXIKI, AROZENA, PEÑAGARIKANO, LOPATEGI.

**5,30 de la tarde:** Embolados.

**6,30 de la tarde:** Inгурutxo de Leiza y a continuación bombas japonesas.


**8 de la noche:** Bailables a cargo del grupo GAU BELA.

**12 de la noche:** Bailables a cargo del grupo GAU BELA.

IGANDEA

DOMINGO

ABUZZTUA  
AGOSTO 14



Goizeko 7,30tan: Diana txistulariek eta Artadi txarangak joak.

Goizeko 9,30tan: Entzierroa eta zezenak plazan.

Goizeko 11,30tan: V. Sagardo Leihaketa plazan.

Arratsaldeko 5etan: Zezenak plazan.

Arratsaldeko 6etan: Herri Kirolak. PENTHATLON.

MENDIZABAL-GARCIARENA  
MINDEGIA-AYERDI

Arratsaldeko 8etan eta gaueko 12etan: HARITZA taldearekin dantzaldia.

7,30 de la mañana: Diana a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

9,30 de la mañana: Encierro y embolados.


11,30: V Concurso de Sidras organizado por las sociedades.

5 de la tarde: Embolados.

6 de la tarde: Deporte Rural. PENTHATLON.


MENDIZABAL-GARCIARENA  
MINDEGIA-AYERDI

8 de la tarde y 12 de la noche: Bailables a cargo del grupo HARITZA.



# 15 ABUZZTUA AGOSTO ATELEHENA

LUNES



**Goizeko 7,30tan:** Diana, txistulariek eta ARTADI txarangak joa.

**Goizeko 9,30tan:** Entzierroa eta zezenak plazan.

**Goizeko 11tan:** Pilota partidua.

**Eguerdiko 11,30etan:** Larbando futbol zelaian. 3. Mailako Futbol partidua: TOLOSA C.F.-C.D.

IRUÑA. Sarrera: Dohain Laguntzalea Udaletxea.

**Eguerdiko 2,30etan:** Aurrerako bazkideen bazkaria.

**Arratsaldeko 6tan:** Ezkonduen entzierroa eta zezenak.

**Arratsaldeko 7tan:** Ezkonduen ingurutxo.

**Arratsaldeko 8tan eta 12tan:** Dantzaldia UDABERRI taldearekin.

**7,30 de la mañana:** Diana a cargo de los txistularis y la txaranga ARTADI.

**9,30 de la mañana:** Encierro y embolados.

**11 de la mañana:** Partido de pelota.

**11,30 del mediodía:** Partido de fútbol de 3ª División en el Larbando: TOLOSA C.F.-C.D. IRUÑA.

Entrada libre.

**2,30 del mediodía:** Comida de los socios del AURRERA.

**6 de la tarde:** Encierro de los casados y embolados.

**7 de la tarde:** Inгурutxo de los casados.

**8 de la tarde y 12 de la noche:** Bailables a cargo de UDABERRI

# OHARRAK

# AVISOS




1. **INCANSABLES** txarangak, egunero, eguerdi, arratsalde eta gabean herriko bazterrak alaituko ditu.
2. Buruhaundiak eguerdiero aterako dira txarangarekin batera.
3. Udala ez da kargu eginen zezenetan gertatzen diren istripuetaz.
4. Egitaraua, borondatearen truke, udaletxean eta tabernetan zabalduko da.
5. Aurten **PELOTA BERRIK** antolatutako pilota partidu profesionalen berri ere izango dugu, esku programen bidez. bertan lekua.

1. La charanga **INCANSABLES** animará el pueblo todos los días de fiestas mañana, tarde y noche.
2. Los cabezudos saldrán todos los días junto con la charanga.
3. El ayuntamiento no se hace cargo de los accidentes que ocurran en las vaquillas.
4. El programa de fiestas se podrá obtener, a cambio de la voluntad, en el ayuntamiento y en los bares.
5. Así mismo se informará debidamente sobre los partidos de pelota profesionales, organizados este año por **PELOTA BERRI**, mediante los correspondientes programas de

# PLAZAOLA

LEITZAKO ALDIZKARIA

11. ZENBAKIA



# EDITORIALA


**J**OASS! joan zaigu urtea bate ohartu gabe.

Konturatuko ziñeten bezela ez zitziun pesta ttikitan trenik allatu, nonbatt paper eta lapitz eskasie etorri zazkiu eta Plazaola itteko diñe ez izaki.

Honatx berriz, San Tiburtzio eunen ezin hutsik in.

Hara ta oain arte arkittu ez dunantzat Joanenen franko modu onen izaten die papera eta lapitze. Ikustazue, Joandegiko zubin ezkutatzea die!!!

*Hontan aittu ganak.*



# Leitzako Gorabeherak

Motillek, nola pasatu zaigun urtea! Badirudi atzo zela Santiburtzio on batzu opatzen genizkizuenen eta, haratx!, urte osoa joan da.

Noski idatzi nuela lhauterietarako, bainan paperik ez zegoela eta... Paperik ez? Ez da nire errua izango, bakarrik hontarako erabiltzen baitut. Beno, hontarako eta beste esanezinezko beharkizun baterako, baina Joanen etxean erlijioski ordainduta.

\* \* \* \*

Haritz Handiaren mendeurrena ospatu dugu aurtengo Pazkoetan. Ehun urte elurte batek Leitzalarreko haritz famatua lurreraturik. Bi metro elur omen ziren herrian.

Polita gelditu zaigu Udalak bertan aldatu duen haritz landarea, inguruan harritxoak Haritz Handiaren neurriak adieraziz, monolitoa, bertsoak. Haritzak falta...

\* \* \* \*

«Gaztetxea nahi zenuten? Hor duzue»... Eta herriko gazteei etxe bat eman zaie, hobeki esanda, bota zaie... Hori bai, Bixenteren poltsikoak baino hutsikago, ez haltzari, ez diru, ez borondaterik... Eskerrak gu baino erneagoak izanen diren, bestela...

\* \* \* \*


Dena den, gazteek badute Gaztetxea, jubilatuek ere beren biltokia eta hobenak emanda erretiroa hartu ez dugunoi zer? Aiton-amonen karkaisak eta seme-alaben purrustadak...

\* \* \* \*

Ari zaizkigu, ari zaizkigu gauzak egiten: Ur depositua, frontoi apainketa, Gaztetxea, landare aldaketak. Zinea ere erosi omen du Udalak. Lehen urtea izateko ez dago gaizki. Saneamendua eta kale konponketak, noizko? Sikira, zuloa han eta zorra hemen, hasiko balitzaizkigu. Ea hurrengo Santiburtzioetarako hasten zaizkigun... eskertuko genuke.

\* \* \* \*

Hasi edo ez hasi izaten da dena. Elizak ere bere teilatua berritzea erabaki du. Ez da txantxetako gauza izanen, 20 milioitatik igotzen bait da presupostua. Baina nahitaezkoa, pentsa, zapelik ez, ilerik ez eta gainera teiltaturik gabe egon behar bagenu elizkizunetan, sarri gintuzuen elizatik gorako baratzean.



Potzoloren kamioia dela eta, labe antzeko zerbait azaldu zaigu Abadetxea eta Elizaren artean. Iruñetik ere etorri dira ikustera. Garrantzitsua omen. Baina oraingoz ez dagoela jakiterik zenbat urte dituen edo zertarako erabili den. Betiere hor dago ikusi nahi duenarentzat.

\* \* \* \*

Hura ikuskizuna Aizkolariaren eguna ospatzeko don Estebanek antolatu ziguna. 139 pittilin eta bi titi aizkoran. Bai ote da hainbeste aizkolari erakus dezakeen herririk?

A!, eta barkatu norbaiten sexua gaizki azaldu badugu, horrelako tripa zaharren artean ez bait zegoen jakiterik gizaseme potolo ala andere haurdun baten aurrean aurkitzen ginen...

\* \* \* \*

Aurrerak 1-Huarte 1. Ez dago inondik ere gola sartzerik. Halako batean, Martinek baloia hartu, bat, bi, hiru kontrario utzi ditu atzean, zutabea ateratzen zaio oinetara... Martinek erregateatzen du eta... 2 eta 1 leitzarrentzako.

Baina zutabeak hankezurra hautsi dio. Leitzako futbol zaleak zorretan aurkitzen gara Martinekin:

Aita Aranburu du Gartziarena ama bien odol beroa Martinek darama. Honek bezala denek hartuz gero zama, Aurrerak laister luke futboleant fama.

Eta futbolaz ari garenez, zer diozue gaztetxoek azkenaldi honetan egindakoaz? Hamargarrenak gelditu zaizkigu Tolosan antolatutako txapelketa batean. Baina ikus, ikus: Bizkaiako eta Iparraldeko selekzioak, Osasuna, Tolosa, Sestao eta horrelako batzuek tartean zeudelarik. Horra hor biharko figuren izenak:

Asier Bereau, X. Arrarás, X. Eskudero, Unai Zabaleta, Unai Arzallus, Arkaitz Lasarte, Jesus Aldunzin, J.A. Jimenez, Arkaitz Dominguez, Txomin Belaunzarán.

\* \* \* \*

—Hi, Bixente, etzakela nire izenik aipatu.  
—Ez gizona, ez. Baina jarri beharko diagu bada Tolosa taldekoak laugarrenak gelditu zaretela?

—Hori bai...  
—Jarri beharko diat bada bi aurrelariak leitzarrak direla?

—Ez, Gasparren ama Domingobordakoa dok baina bera ez dok hemen jaioa.

—Baina Txoma hemengo dok.  
—Bai, hori bai.


—Jarri beharko diagu Mihura ere frogatzen ari haizela bada?

—Hori bada  
—Ikusten dok? Nik ez diat hire izenik jarri.  
—Ongi, ongi.

—Hi, Peru, Irujo ere bigarren ekipora eraman huela jarriko diat, ez?

—Bai.  
—A!, ahaztuta nian...

\* \* \* \*



## X. KULTUR ASTEA IGARO ETA SEGITZEKO ASMOTAN

Plazaola aldizkarirako idazten ari garen honetan Ekainaren bukaera aldean aurkitzen gara eta oraindik X. KULTUR ASTEKO lanak ezin bukatuz. Gezurra badirudi ere, hamar egunetako Aste hau antolatzeak lan eta denbora asko dakar, bai prestatzeko —bi hilabete ez da nahikoa—, bai ekitaldietako egunak, eta noski, dena egina dagoela dirudienean, bukaera ondoko hango eta hemengo «azken kontuak» egiten. Dena dela, momentu egokian aurki gaitzke balantze orokor bat egiteko. Balantzea ez da bakarrik diru aldetik nola bete den jakitea, nahiz eta denon ahotan haserako galdera —«pufoa» egin al duzue?— egon. Diru gora beheraz gain; jendearen parte hartzea, erantzuna, egitaraua berraztertzea... dugu azkeneko pauso hauen helburua.

Hau dena behar den bezala eztabaidatzeko, ekintza guztiak banan bana aztertu beharko genituzke, baina irakurtzen duenarentzat aspergarri xamarra gerta dakioke; horregatik balorazioak orokorki egiten ditugu.

Aurten umeei eskeintza berezia eman nahi izan diegu eta horregatik bestetan baino ekitaldi gehiago osatu dira. Beste gauza guztietan bezala, arrakasta handiagoa izan baldin badaditeke ere, ontzat hartzen dugu.

Bestaldetik, igandeko ospakizunak positibotzat jotzen ditugu oso. Eskulangintzaren VIII. ERAKUSKETAN, toki gutxitan lortu ahal den gauza bat lortzen ari gara, hau da, Leitzako artesauak gero eta gehiago izatea. Jakin ez badakizue ere, aurten hamabost gauza ezberdinak ikusi ahal izan dugu herritarrek berak eginak, hau eragingarria bihurtzen da, partizipazioa denentzat zabalik gelditzen dela eta haunditu daitekeela jakinez. Bestaldetik «kanpokoak» mantenduko badira ere, kalidade handiagoa bilatu behar dugula jakin arazten digu honek.

Hurrengo igandean VII. Iparralde Eguna ospatzen zen, eta ez da gure eritzia bakarrik, bertan egon zen jendearena baita: «sekulako eguna». Egun honek, jai giroan euskaldunak garena, mugak salatzea eta «bestaldeko» lagunekin elkartzeta, dituhelburuak. Baina aurten, egun hau sendotzeko asmoz, dakizuen bezala Hiriburuko «Uhaina» soziedadearekin Elkartasun egun bati ekin diogu, Kultur mailako ezaugarriak trukatzeko asmoz. Sortu zen giroa ikusiz, arrakasta handia lortu duela esan dezakegu. Dena dela hau horrela atera bazen, zenbatek lan egin zuten kontutan hartu behar dugu: zikiro erretzen zutenak, serbitzen sutenak, mahaiak jarri eta montatu zituztenak eta behin ere ikusten ez diren eta aipamen berezia merezi dutenak, hau da, bi egun osoz sukaldetan sarturik egon zen emakumeen taldeak.

Orain astebarruko ekitaldietaz idazterakoan, beste koloretako tinta jarri beharko dugu. Gaur egun ezerk ez al gaitu kezkatzen? Gaur egun gai baliogarririk ez al dago? Hitz egiteaz, aditzeaz, aspertu al gara? Gaurko gizarteak hedatzen duen

Hitzaldietan, gaur egun era betean edo bestean axola gaituzten gaiak ezarri dira. Denok iritzi bat dugu, bakoitzak berea, baina denak ez dira berdinak. Zergatik ez aprobetxatu horrelako aukerak eztabaidatzeko? Izan gaitzeen zentzudunak. «eztabaida» hitzak beldurra ematen badigu ere, bere mamiaz beharturik gaude. GAZTETXEA adibidetzat hartuz, horrelako galderak entzun ditzakegu: Zergatik borrokatzen dugu gaztetxe baten alde? Zergatik nere seme-alabak joaten dira gaztetxera? Zergatik... eta zergatik pila bildu daitezke gai honetan eta beste guztietan. Hitzegiterik eta aditerik ez dagoen gizarte batetara iristen bagara, gizarte desegin eta esperantzarik gabeko gizartera heldu garela pentsatzen dugu. Horregatik, hau ikusirik —beste era batetan agian— mantendu behar ditugula aukera hauek deritzogu.

Aste honetako beste puntu beltza, musikaldiak izan dira. Elizan egindako eskolaniaren saioan jende talde batek erantzun zuen baina, dantzaldietan eta Jazz emanaldian, oso jende gutxi ikusi zen. Honek, zer lana dakarren eta ekonomikoki zenbat galtzen den ikusiz, alternatibaren bat pentsatu beharko dela gau hauetako, garbirik utzi digu.

Ekonomiaren kontua aipatu dugunez, presupuestoaz mintzatu beharko gara. Arlo honetan ez dugu banan bana hartuko, baina diru-mogimendu handienak ikusiz, alde batetik Iparralde Eguna hartu behar dugu, zeren emaitzaren gorabeherak, hemen finkatzen dira. Hau da, gaizki atera ezkerro, hor heldu dira galera handienak. Egun honek milioi erdi baino gehiagoko kostoa izan du. Etea hau ongi beste da, giroarekin bat eginez, espero zen baino gehiago lortu da. Esan dezakegu berea betetzen duela, beste gastuetarako pixka bat utziz. Kalkulatu bezala, milioia eta zortzirehun mila pezetatako aurrekontua izan dugu. Hortatik «Principe de Viana»-k, eta Iparralde Egunako bazkirako sarrerak ematen duena kenduz, beste bederatzirehun mila pezeta lortu behar dira kitto egiteko.

Hau dena nola? Alde batetik sarrerak kobratuz, —gure asmoa ahal den gutxienean kobratzea bada ere, oso sarrera inportantea eta nahitaezkoa dago hemen!, bestaldetik herriko tabernak, Aurrezki Kutxak, lantegi txikiak (Sarririk ez omen du dirurik horretarako), Eskola, Ikastola eta Guraso Elkarteek emandako diru laguntzak. Bigarren honetan, denetara, 200.000 pezeta inguru jaso delarik. Pegatinekin ere asko biltzen da, eta azkenik, Leitzako Udaletxeak emandako ehun mila pezela. Puntu honetan adierazi nahi duguna hau da: Horrelako ekintza herritarra ikusirik, (elkarte guztiak eta baita Udaletxea ere konbidatua izan da eta partidu ezberdinetako bi konzejal bildu ziren haseran) bere diru laguntzaren konpromisoa handiagoa beharko lukeela, Udaletxeko «presupuesto ordinario» deitzen den hortan diru kopurua gehituz.

Norbaitek, ekintza hauek talde konkretu batek prestatu eta interes partikular batzuekin eginak direla pentsatzen badu, hau adierazi nahi diogu: Ez dela ideologikoki bat eginez oinarriturik dagoen taldea, hau da, ez da partidu politiko batena (ezta asmoa ere), irekirik eta edozein pertsona, talde eta soziedadearentzat zabalik dagoela. Hau praktikan demostraturik dago, horregatik «fondo publikoak» erabil daitezkeela pentsatzen dugu. Herritar guztiok parte hartzen dugu diru horiek sortzen eta horrelako kultur ekintzetan probetxoa ateratzeko egokia dela deritzogu. Ez dugu haserre batetan murgildu nahi, garbi utzi besterik ez, eta dudarik gabe, konpromisoa gehiago exijitu.

Beno, ez dugu idatzi hau kolore beltzaz bukatu nahi, horregatik esan behar dugu positibotzat jotzen dugula aste hau, abina jakinik hobetu daitekeela eta hobetuko litzateke denon parte hartzea handiagoa balitz. Esperantza horiekin gonbidatzen zaituztegu hemendik aurrera egiteko asmoa ditugun ekintza ezberdinetan. Talde bat dago, Kultur Astea baita, baina gauza gehiago egin daitezke urtearen zehar, eta hortan gaude.



# EUSKARAREKIN

## BATEGINIK

Duela hilabete batzu, BATEGINIK deituriko kanpaina eratu zela denok gogan dugu. Hori pasa zen, eta zer?

Euskalerrri osorako prestatuturiko mobilizapen honek zituen helburuak gogora arazi nahi ditugu.

Alde batetik, Euskara Euskal Herriaren hizkuntza nazionala dela esanez, herritar guztien eskubidea dugula azpimarratzen zen. Horregatik, euskararen berreskurapena eta normalkuntza hartu behar dugu helburutzat.

Bigarren puntu batetan, hizkuntzak, frantziar eta espainiar estatuaren administrazioen aldetik jasatzen duen ordezkapena eta diskriminazioa adierazten du.

Hau ikusirik, hiru puntutako eskaera egiten da.

1.- Agintari ezberdinei, Euskalerrrien hala Madrilan edo Parisen ari direnei, euskararen ofizialtasuna aitatztea Euskal Herri osoan, eskubide hau denontzat ziurtatzea maila guztietan behar diren baliabideak jarritz eta prozesu honetarako administrazio desberdinen arteko hizkuntza politika koordinatzea eta bateratzea.

2.- Europako Elkarteko erakundeei, euskara ofizialki onar dezatela ondorio guztietarako eta hizkuntza minorizatuek —euskara kasu honetan— onarpen osoa eta berdina eduki dezaten.

3.- Euskalerrriko herritar guztiei, guztion eta bakoitzaren ahaleginik gabe, aurreko guztia alperrik izanzen dela, trebetzen eta euskaraz bizitzeko saiatzen ez bagara.

Zabaldutako agiriaren mamia edo edukiera hau izan zen gutxi gora-behera. Honetarako fase edo zati ezberdinak ezarri ziren:

—Informazioa.

—Herritako ekintzak, gehi firma bilketa eta bono saltzea.

—Kanpainaren bukaera.

LEITZAN, NOLA SUERTATU DA?

Kanapina hau Euskalerrri osora zabaldu zenez, Leitza ere iritsi zitzaigun. Hemen, lehenengo pausoa, Euskal Kulturarekin zer ikusirik duten taldeak bilduginen: A.E.K., Eskola, Ikastola, Udaletxea...

Maiatzaren bigarren astea hartu zen —«buzoneoa» egin ondoren— zenbait ekintza aurrera eramateko, asmoz. Lehenbiziko egunean Kirol Eguna eta bigarrenegun bertsolari eta trikitrixa jaialdia ospatu ziren. Azkeneko honetan jendearen erantzuna polita izan bazen ere, bezperako ekitaldiak jendez gainezka egon zirelarik ezin daiteke esan.


Esan bezala, firman edo sinaduren bilketari eta bonoen saltzeari ekin genion eta ez zen makala izan emaitza. Zortzirehun sinadura, bildu ziren, dudarik gabe horrelako helburuak izanik, gehiago espero zitekeen, baina portzentaian, firmadun hirutik batek eman zuen. Bestaldetik larehun bono saltzeko asmoa bagenuen ere, hiruehun eta hemezortzi saldu ziren. Datu hauetatik, zaila bezain arriskugarria ikusten dugu konklusioak edo ondorioak ateratzea.

Dena dela, horrelako kanpaina batek, konzientzi mailan «zerbait» eman behar du eta hau eguneroko bizitzan hartu beharreko konpromisoa da. Gaur egun euskara-gune gutxi dago zoritxarrez eta horietatik bat Leitza dela hamaika aldiz oihukatu dugu. Baina Leitza, hizkuntza mailan, ezaugarri hau galtzen ari da pixkanaka. Euskararen txoko hau hausten ari da —ari gara—. Normaltzat hartzen dugu kaleetan barna, gaztelera aditzea. Normaltzat hartzen dugu gurasoen arteko elkarrizketak gaztelera egitea, eskolatik kanpo umeek gaztelera egitea, geure sentimenduak beste hizkuntza horretaz egitea. Batzuentzat inportantziarik gabeko arazoa bada ere, beste askok soluzio bide baten beharrean sentitzen gara. Beste gauza askoren gainetik, hizkuntzak —euskarak— lotzen gaitu Herri bat osatzeko nahian. Oskorrik kantatzen duen esaldia errepikatu nahi dugu hemen: «... zer Euskal Herri litzateke bere hizkuntza galtzen duena...». Beste lema askoren menpe bizi gara gaur egun: «Euskalerrri euskaraz», «euskara gure hizkuntza da»... eta egoera normal batetan, aperrikakoak izan liteke, baina guk geuk behartzen diogu geure buruari hau dena esatera eta aditzera.

Lan sakon eta handia egin eta egiten da euskararen egoera zuspertzeko, ez dezagun potto egin. Betiko argumentuak asperturik bagaude ere, ez dezagun etsaiaren papera bete. Pentsa eta sines dezagun gure hizkuntzaz balia gaitzkeela eguneroko bizitza aurrera eramateko.

Bateginik jarrai dezagun!

Hizkuntzarekin Bateginik... hizkuntzarekin gutxienez!!



# LA SALUD. UN PROBLEMA DE EDUCACION

En el ámbito de la salud, la prevención es, hoy en día, un desafío para la ciencia y la sociedad, organismos nacionales e internacionales consideran que la salud no puede ser definida y ya como la ausencia de la enfermedad sino como un estado de bienestar físico, psicológico y social. El tradicional modelo médico de salud ha sido sustituido por un modelo bio-psico-social.

Estos cambios en el concepto de salud vienen de los propios avances de la medicina que en los países desarrollados han conseguido una mejora de los indicadores tradicionales de salud (mayor esperanza de vida, menor índice de deficiencia mental, etc.) además de haber observado que muchos trastornos tienen un marcado origen psicosocial.

En la cadena causal de los problemas de salud se ve que antes de la cirrosis del alcohólico o del edema pulmonar del heroinómano están la ingesta de drogas, antes del embarazo no deseado está el comportamiento sexual no previsor, antes de la obesidad infantil —verdadero problema en nuestro país— están las pautas de crianza familiar, en definitiva, muchos de los comportamientos que realiza un sujeto atentan contra su propia salud.

Desde mi punto de vista, cualquier tipo de prevención de todos estos comportamientos no saludables y peligrosos debe estar integrada en un marco educativo mucho más amplio que trataría de mejorar la calidad de vida de los sujetos desde una idea integral de la salud, lo que, en definitiva, podríamos denominar educación para la salud.

## LA EDUCACION PARA LA SALUD

La forma en que la gente se comporta, el tipo de alimentos que ingiere, sus hábitos de ejercicio, el cuidado que tiene de sus dientes, los cigarrillos o el alcohol que consume influyen de un modo decisivo en su estado de salud. El estilo de vida en general con el que viven los individuos y los riesgos a los que se exponen condicionan sus posibilidades de enfermar o morir antes de lo previsible.

Si esto es así, la falta de conocimiento de todas estas condiciones sería una de las principales barreras para que la gente adopte comportamientos saludables. Es por esto por lo que tradicionalmente se cree que la solución está en transmitir información. No obstante, todos estaremos de acuerdo en que lo que la gente hace es más importante para su salud que lo que la gente conoce acerca de ella. ¿cuántos alcohólicos conocen las consecuencias físicas y sociales asociadas a su conducta de adicción y por ello siguen bebiendo?

En efecto, la información puede ser una condición necesaria pero en modo alguno suficiente para que los individuos cesen de actuar de un modo peligroso para ellos y para la comunidad o se impliquen en acciones saludables. Para ello es preciso recurrir a estrategias y procedimientos cuyo objetivo sería el cambio de comportamientos.

Los programas de educación para la salud centrados en transferir información han sido abandonados hace años incluso en las escuelas, donde tradicionalmente se ha enfatizado en la función de informar.

Debemos tener claro que informar no es más que transmitir unos conocimientos y que la educación lo que persigue es la formación, el desarrollo del ser humano.




Hoy en día la mayor preocupación de los educadores para la salud es la de cómo lograr que las personas y las comunidades adopten realmente comportamientos facilitadores de salud. La tarea no es fácil, está llena de grandes obstáculos: implicar el dominio de los conocimientos que en la actualidad se tienen del comportamiento humano la coordinación de recursos que tiene la sociedad, de disciplinas y profesiones (médicos, pedagogos, padres, etc) y la adaptación de cambios sociales y políticos.

Es un hecho que muchas de las acciones que podríamos llevar a efecto para mejorar nuestra salud complicadamente entrelazadas con el sistema de valores, economía, principios religiosos, etc. Por ejemplo en los usos sociales del alcohol y el tabaco hay multitud de intereses económicos.

La variedad de opciones en una sociedad de libre mercado es sólo aparente. El hombre no controla lo que consume, es cada vez más dependiente a la hora de tomar decisiones. Por ejemplo un sujeto puede optar por fumar o por respirar un aire no contaminado ¿pero es realmente libre cuando de hecho está constantemente siendo estimulado a fumar por la publicidad o por la gente que le rodea? Vemos que la toma de decisiones individuales es cada vez más difícil en un contexto en el que no existe una cultura de la salud que pueda equilibrar el desamparo del hombre ante los que se enriquecen a costa de alterar la salud de la comunidad.

La educación para la salud es una empresa demasiado amplia y compleja como para que sea delegada únicamente en manos de los políticos y de los especialistas (médicos, etc). La educación para la salud debe contemplarse en una estrategia amplia de promoción para la salud en donde la comunidad asuma un protagonismo efectivo.

En definitiva, los objetivos que perseguiría la educación para la salud serían: desarrollar hábitos y costumbres sanas en la gente, modificar aquellos comportamientos de los sujetos que son insanos o peligrosos para su salud, promover la modificación de aquellos factores externos al individuo que influyen en su salud, lograr que los individuos y los grupos organizados de la comunidad (entiéndase ayuntamientos, grupos sociales, etc.) acepten la salud como un valor fundamental por lo que deberán asumir responsabilidades y control sobre aquellas circunstancias que les afectan y, por último, cambiar la concepción medicalizada e individualista de la salud.



Ezkerrean zutik, Evaristo, lepotik zintzilik pañulo duela, eta txistua ezpainetan. Gainerakoak, zein diren, begira erne eta asma.



## EVARISTO ELDUAYEN, ZIZTULARIA

Nork ez du entzun Evaristoren aipamenik Leitzako txistulari zaharrei buruz hitzegiten inor hasi zaionean? Bai, badakigu leitzar askok baduela Ebaixtoren aditza, eta bera ezagutu zuen jende franko badela gure artean, baina, hala eta guztiz ere, hari buruzko pasarte batzuk hona ekartzeak ez dugu uste jnori kalterik egingen dionik. Nork esan behar zuen PLAZAOLA trenak harrapatuta hil zen Ebaixtoren pasadizoak izen bereko PLAZAOLA honetan kondatuko zirenik? Baina, gauzak horrelaxe gertatzen dira, eta oraingoan, Ebaixto gertatu zaigu tren zaharra eta aldizkari berria uztartuko dituen protagonista nagusia.

Gerotik beste askok egin dute lana ahaztu gabe. Ebaixtori zorzaio, beste inori baino gehiago, Leitzako Ingurutxoak bizi duen arrakasta: harengandik jasoa izan bait zen lehenbiziko aldiz partiturretara. Hilario Olazaran ospetsuak hartu zion hain zuzen gaur «Joanen Etxea» esaten diegunean, oraintsu dela hirurogeita piku uste. Baina, eman diezaiozun hitza Aita Hilariori berari, guk baino askoz hobeki kondatuko bait dizkigu orduko pasarteak:

*«Bajo la robusta curva de uno de los arcos de piedra del monumental Ayuntamiento, que en escudo blasona heroicamente, el viejo txistulari popular, equidado y serio como una escultura helénica, con su gran boina sobre los ojos y la negra blusa recogida en la cintura, tañe una vez más en su larga vida su flauta de manzano, el txistu que en sus años mozos construyera para entretejer sus pastoriles soledades, para llenar el silencio de los montes.*

*Brotan las dulces melodías patrias con el aroma sonoro de lejanas edades... La extensa plaza hierve en colores. Una hermosísima juventud —sonrosada y esbeltísimas ellas, corpulentos y agraciados ellos— renueva continuamente sus saltos, giras y pasos de las danzas raciales.*

*Durante toda la tarde, Ebaixto, cual maravilloso pájaro, ha tocado infatigable las más suaves y alegres melopeas.*

*¿Se habrá percatado de que, escondido tras una ventana de la vecina casa Korteja (Joanen Etxea), alguien contempla y escucha embelesado?...*

*Eran las fiestas patronales de San Tiburcio de 1926, cuando tuve la gran complacencia de oír al gran txistulari de Leiza, Evaristo de Elduayen, guiando sabiamente las bellísimas danzas del pueblo, llamadas con el lindo nombre de Ingurutxo. Apenas terminó de sonar la encantadora música, hice llamar al popular artista. Precisaba recoger cuanto antes aquel tesoro de melodías patrias, que junto con la vieja flauta podían desaparecer de un día para otro.*

*Al cabo de larga espera, apareció el buen viejo, que huranamente se obstinaba en negarme su entrevista con el infundio pretexto de que yo no sabía hablar en euskera (vascuence). El no comprendía una palabra de ninguna lengua extranjera. —No soy tan ignorante, le dije sonriendo, como para que no podamos entendernos en nuestro euskera, amigo mío.*

*El buen hombre, animado con la cordial acogida, se prestó a cuanto quise; y sacando con disimulo el txistu, que siempre llevaba escondido y cruzado entre la faja y el pantalón, comenzó a tañer maravillosamente.*

*Y le observó con la misma embelesada admiración con que se contempla a uno de esos mirlos de voz dulcísima, que encantan nuestras arboledas».*

Guzti hau garai hartako ARILLA argitaletxeak ateratako Leitzako Ingurutxoari buruzko monografiko batetan dator. Oso osorik Lizarrako Aita Olazaranek egingako monografikoa da hau, eta leitzar dexentek badutela uste dugu koadernotxo xoragarri hau etxeko zokoren batetan hautsez estalia, edo pipiak zulatuxea izatea ere ez asko fiatu! Dena den etxe gehiagotara ere hel dadin merezi du, eta jarrai dezagun Aita Olazaranen esanetara, izanez ere, hain goxo eta xamur adierazten ditu orduko giora eta pasarteak. Begira, esate bateko, nola egiten duen Ebaixtoren deskribapen fisikoa:

*«Alto, seco, entrecano, cara larga surcada de arrugas ys ojos azul claro, que se perdían en lo invisible mientras tocaba su brillante flauta.*

*Una ingenua sonrisa iluminaba frecuentemente la faz adusta en apariencia. Poco a poco fui trasladando el pentagrama las melodías que incansable y pacientemente repetía. Y al cabo, toda la música de Leiza, fijada en el papel, sonó en el piano por primera vez.*

*Repentinamente los claros ojos del viejo auleta (sic) se iluminaron con una gran alegría. Sus melodías campesinas, envueltas en la túnica polimita de la moderna armonía, le acariciaban el alma con insospechado deleite.*

*Pero una sombra de melancolía fue oscureciendo su rugosa faz. El pensamiento de que las caras melodías de su desgastada flauta dejaran de pertenecerle exclusivamente y saltando del recinto familiar fueran a cantar por el mundo, le afligió hasta el punto de hacerle exclamar:*

*—Se acabó mi música. Ahora me llevan a Pamplona y...!*

*Con las más suaves palabras le tranquilicé, haciéndole ver que lo que él creía una profanación y el término de su música, era precisamente el principio de una perennidad gloriosa...*

*Unas recias pisadas resonantes sobre gordo pavimento de roble, y Ebaixto se alejaba en la obscuridad de la noche, sin sospechar que su nombre nimbado para siempre brillaría junto al Ingurutxo, la hermosa colección de danzas bascas, que había conservado con la humilde ingenuidad de quien guarda sin saberlo un preciosísimo tesoro».*

Ordoren Ingurutxoaren xehetasun guziak ematen ditu, batez ere, Nafarroan zehar hainbat eta hainbat dantza eta musika doinu eder bildu zuen Hilario haundiak. Baina, denboraren buruan, ikus atzera nola jotzen duen Ebaixto zahar-rangana. Ez zeukan ahaztuzeko nonbait! Bihotza ukitu zion, ongi ukitu ere, haren heriotzaren berri jakiteak!

*«Declinaba el verano. En la página final del borrador de la partitura de piano del Ingurutxo escribí la última nota, y con un suspiro de satisfacción dejé el lápiz de metal blanco descansando en el rincón de la última tecla de mi piano.*

*Al ojear distraídamente la prensa del día, en las noticias oficiales leí con estupor unas líneas frías y terribles, a las que nadie había dado importancia: «Cerca de una estación de Leiza ha sido atropellado y muerto por el tren Plazaola el viejo vecino de dicha villa Evaristo de Elduayen».*

*El txistulari glorioso a quien debe la raza baska la conservación de una de sus más bellas colecciones de danzas, el flautista euskaldun de misterioso faz, que, durante tantos años hiciera saltar, como una luz, el júbilo añejo de las músicas raciales con su desgastada flauta de manzano, había callado para siempre aplastado por un tren, cuando se dirigía a sus tranquilas labores campesinas.*

*¡Pobre amigo mío! ¡Que Dios haya recibido tu alma inocente!*

Honelaxe bukatzen du Hilario Olazarane, Ebaixto zenarekiko iharduna. Nik dakidala, inork ez du idatzi Ebaixtori buruz, Lizarrako herri musikazale amorratu hark bezain xamur, ezti eta goxo.

Baina, egia esan, Aita Olazarenek baino maila goragoan jartzen du Orixe haundiak berak Ebarixto famatua. Beste euskal gai askori bezala dantzari ere eman zion bere ukitua Orixe. Badu, hain zuzen 1965. urtean egin zitzaion omenaldia zela-ta argitara zen liburua; eta bertan, beste langai ugariren artean Dantza Nagusia-ri buruzko lantxo dator. Gehiago luzatu gabe, hona Ebarixto aipatzen dueneko pasarte batzuk:

«Nere iaioerrien lenbizi, mutiko nintzala, orain galdu bada ere, naiz Naparroako danboliña zekartela, Ebaristo Eldudain, naiz Lirzatzako giputza, J. Antonio Arotzena, sokadantzatik asten zan, gizon usekin. Mutillen zubia, Desapioa eta Erreberentzia bukaturik, neskatzak serbitzen ziran sokadantzaren tuntun be-  
rean, Ingurutxoak asterako».

Halabaina, honako pasarte honetan (303.orri.) goraitzen du bereziki leitzarraren dohaia: «Gaurko ziztulariak askoz oreak dira lengoak baino ziztua iotzen; baiña danboliña iotzen oso aldrebesak, asko beintzat. Ontan ziren iaioak zaar aiek, eskola gabe ere. Zaar guzia ez da on, eta berri guzia ez da gaizto; batetik eta bestetik oberena artu bear dugu. Danboliña, tuntuna esan nai nuke. Nor da orain, esaterako, Ebaristo Elduain bezain tuntunlari onik? Ongi gogoan daukat, Leitzako plazan iru ordu laurdenez atertu gabe egon giñala iruindar bat eta ni, aren neurri berdintasunarekin arriturik. Metronomo bat ekarri hagenu, etzait iduritzen arengandik pitsik ere aldegiog zunik. Bai ote zan Euskalerrrian ez ezen, lekura ere, zotza arek bezain zeatz eraman zezakenik?..».

Eta berriro, 309. orrialdean, hara zer esaten duen berak Dantza Nagusia deitzen duen Ingurutxoaz ari dela:

«Gure inguruetan izan dan danboliñik jatorrena Leitzako Pastain izan da. Pontxo areago ziteken ziztuan, baiñan arratzean (tuntunean) oraingoetara etortzen zan. Ez dei esaten zortziko au 6/8an idazten jarraitu bear dugunik, iztuetak eta Pastainek eta bezala, baiñan aien patxaran jo dezatela, gure dantza aundiki au kaxkartu ez dedin. Ontan Pestain-en eskolakoa da gure Sarasola au, baiñan esan dedanez, agurotu egiten da.

Nik iru ikasle ezagutu ditut Pastain-enak: Ebaristo Elduain, Leitzako bertakoa; J. Antonio Arotzena, Lizartzakoa, ta nere iaioerriko J. Inazio Atxega. Oien patxaran biurtzea nai nuke nik, naiz ziztua naiz zaldabaija jotzen dala».

